Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko martxoaren 7a, asteartea — 45 — Martes, a 7 de marzo de 2023



## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Akats zuzenketa*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 21ean honako erabaki hauek hartu zituen:

«Tokiko Gobernu Batzordeak, 2022ko abenduaren 20an, Donostiako Udalaren C1 eta C2 azpitaldeko eta E taldeko plazak lehiaketa-oposizio bidez betetzeko egonkortze prozesuko deialdia eta oinarriak onartu zituen.

Oinarriak 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 247. zenbakian.

— Argitalpenaren ondoren, honako akats eta hutsegite hauek atzeman dira:

1) 1. eranskina. Plazen taula Digitalizazio Kartografikoko Teknikari laguntzailea plazako titulazioan (48. orrialdea).

2) Eranskina II. Mugikortasun agentea 2.3. atalean (57. orrialdea).

3) Eranskina IV. Langilea 5. Gaitegia atala (87. orrialdea).

Honako zuzenketa hauek egingo dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2. artikulua aplikatuz:

1) 1. eranskina. Plazen taula Digitalizazio Kartografikoko Teknikari laguntzailea plazako titulazioan (48. orrialdea) ez dator bat bi hizkuntzetan, zuzena izanik euskarazko bertsioan jasotakoa (Teknikari Titulua (Eraikuntza eta Obra Zibila)) 2021eko urtarrilaren 19an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako Lanpostuen zerrendaren arabera.

— *Hau dioenean:*

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Corrección de errores*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 21 de febrero de 2023, ha adoptado los siguientes acuerdos:

«La Junta de Gobierno Local aprobó el 20 de diciembre de 2022 la convocatoria y las bases del proceso de estabilización para la provisión mediante el sistema del concurso-oposición de plazas del Subgrupo C1 y C2 y del Grupo E del Ayuntamiento de San Sebastián.

Las bases fueron publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 30 de diciembre de 2022, n.º 247.

— Que tras la publicación, se han detectado varios errores y omisiones en:

1) La titulación del anexo 1 cuadro de plazas correspondiente a la convocatoria de la plaza de Técnico Auxiliar de Digitalización Cartográfica (página 48).

2) El apartado 2.3. del anexo II agente de movilidad (página 57).

3) El apartado 5. Temario del anexo IV. operario/a (página 87).

Se procede a efectuar las siguientes rectificaciones, en aplicación al artículo 109.2. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas:

1) La titulación del anexo 1 cuadro De plazas correspondiente a la convocatoria de la plaza de Técnico Auxiliar de Digitalización Cartográfica (página 48) no coincide en la dos versiones, siendo la correcta la versión de euskera (Teknikari Titulua (Eraikuntza eta Obra Zibila)) según la Relación de Puestos de Trabajo aprobada por la Junta del Gobierno Local de 19 de enero de 2021.

— *Donde dice:*

| *Denominación plaza* | *Clasificación* | *Especialidad* | *N.º vacantes* | *Anexo* | *Titulación* |
|---|---|---|---|---|---|
| Técn. Aux. de digitalización cartográfica | Grupo: C<br>Subgrupo: C1<br>Escala: Administración especial<br>Subescala: Técnica<br>Clase: Técnicos/as auxiliares | --- | 2 | I | Título de Técnico (Rama Edificación Civil) |

— *Honako hau esan behar du:*

— *Debe de decir:*

| *Denominación plaza* | *Clasificación* | *Especialidad* | *N.º vacantes* | *Anexo* | *Titulación* |
|---|---|---|---|---|---|
| Técn. Aux. de digitalización cartográfica | Grupo: C<br>Subgrupo: C1<br>Escala: Administración especial<br>Subescala: Técnica<br>Clase: Técnicos/as auxiliares | --- | 2 | I | Título de Técnico (Rama Edificación y Obra Civil) |

EK\CV GAO-I-2023-01346

2) Eranskina II. mugikortasun agentea 2.3. atalean (57. orrialdea) jasotzen da izangaiek «A1» eta «B» gidabaimenak indarrean izatea betekizun espezifikoak bete beharko dutela.

Ez da jaso, baldintza egiaztatzeko ondorioetarako soilik, nahikoa izango dela hiru urtetik gorako antzinatasuneko B motako baimena egiaztatzea A1 gidabaimena egiaztatzeko. Hori guztia, azaroaren 10eko 971/2020 Errege Dekretuaren (zeinaren bidez maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gidarien Erregelamendu Orokorra aldatzen duen) artikulu bakarreko bat atala aplikatuz.

*— Hau dioenean:*

«2.3. Gidabaimena.

«A1» eta «B» gidabaimenak indarrean izatea.»

*— Honako hau esan behar du:*

«2.3. Gidabaimena.

«A1» (edo «B» hiru urte baino gehiagoko antzinatasunarekin») eta «B» gidabaimenak indarrean izatea.»

3) Eranskina IV. langilea 5. Gaitegia atalean (87. orrialdea) hiru (3) gai jaso dira.

Langileen ordezkariekin negoziatutako egonkortze-prozesuak diseinatzeko irizpide orokorren; eta espedientean dagoen Pertsonak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko abenduaren 19ko txostenaren arabera, E taldean deitutako plazen gai-zerrendak lau (4) gai izan behar ditu.

Akatsagatik, oinarrietan hiru (3) gai soilik jaso dira.

*— Hau dioenean:*

«5. Gaitegia.

GAITEGIA

1. gaia. Udalaren antolaketa eta administrazio egiturak.

2. gaia. Datu Pertsonalen babesa: oinarrizko ideiak.

3. gaia. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea.
— Atariko titulua. Xedea, aplikazio-eremua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak.»

*— Honako hau esan behar du:*

«5. Gaitegia.

GAITEGIA

1. gaia. Udalaren antolaketa eta administrazio egiturak.

2. gaia. Datu Pertsonalen babesa: oinarrizko ideiak.

3. gaia. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea.
— Atariko titulua. Xedea, aplikazio- eremua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak.

4. gaia. Udaleko zerbitzuen katalogoa.»

Horiek horrela, hauek dira Tokiko Gobernu Batzordeari proposatutako

2) Que en el apartado 2.3. del anexo II agente de movilidad (página 57) se recoge que las personas aspirantes deberán reunir el requisito específico de estar en posesión de los permisos de conducir «A1» y «B» en vigor.

Por omisión, no se ha recogido que, a los únicos efectos de acreditar el requisito del permiso de conducir «A1» bastará con estar en posesión del permiso de la clase «B» con una antigüedad superior a tres años, todo ello en aplicación al apartado Uno del artículo único del Real Decreto 971/2020, de 10 de noviembre, por el que se modifica el Reglamento General de Conductores, aprobado por Real Decreto 818/2009, de 8 de mayo.

*— Donde dice:*

«2.3. Permiso de conducir.

Estar en posesión de los permisos de conducir «A1» y «B» en vigor.»

*— Debe de decir:*

— «2.3. Permiso de conducir.

Estar en posesión de los permisos de conducir «A1» (o el «B» con una antigüedad superior a tres año) y «B» en vigor.»

3) Que en el apartado 5. Temario del anexo IV. operario/a (página 87) se recogen tres (3) temas.

Según los criterios generales para el diseño de los procesos de estabilización negociados con la representación del personal; y el informe, que obra en el expediente, de la Directora de Gestión de Personas del 19 de diciembre de 2022, el temario de las plazas convocadas del grupo E, debe de constar de cuatro (4) temas.

Por error, en la bases se han recogido sólo tres (3) temas.

*— Donde dice:*

«5. Temario.

TEMARIO

Tema 1. Estructura organizativa y administrativa del Ayuntamiento.

Tema 2. Protección de Datos Personales: nociones básicas.

Tema 3. Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres:

— Título Preliminar. Objeto, ámbito de aplicación y principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres.»

*— Debe de decir:*

«5. Temario.

TEMARIO

Tema 1. Estructura organizativa y administrativa del Ayuntamiento.

Tema 2. Protección de Datos Personales: nociones básicas.

Tema 3. Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres:

— Título Preliminar. Objeto, ámbito de aplicación y principios generales que deben regir y orientar la actuación de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Tema 4. Catálogo de servicios del Ayuntamiento.»

Visto cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes

EK\CV GAO-I-2023-01346

AKORDIOAK

*Lehenengo.* Akordio honen azalpen-zatian adierazitako akatsaren zuzenketa onartzea. Honen bidez, Donostiako Udalaren C1 eta C2 azpitaldeko eta E taldeko plazak lehiaketa-oposizioaren bidez betetzeko egonkortze prozesuko oinarrietan antzemandako akatsak zuzentzen dira, (Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko abenduaren 20an onartu eta 2022ko abenduaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 247. zenbakian).

*Bigarrengo.* Donostiako Udalaren C1 eta C2 azpitaldeko eta E taldeko plazak lehiaketa-oposizioaren bidez betetzeko egonkortze prozesuko oinarrien zuzenketa argitaratzea dagokien komunikabide ofizialetan.»

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko otsailaren 23a.—Maribel Iñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (1346)

ACUERDOS

*Primero.* Aprobar la corrección de errores indicada en la parte expositiva del presente acuerdo, por la que se subsanan los errores advertido en las bases del proceso de estabilización para la provisión mediante el sistema del concurso-oposición de plazas del Subgrupo C1 y C2 y del Grupo E del Ayuntamiento de San Sebastián. (aprobadas por la Junta de Gobierno Local el 20 de diciembre de 2022 y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 30 de diciembre de 2022, n.º 247).

*Segundo.* Publicar la corrección de las bases del proceso de estabilización para la provisión mediante el sistema del concurso-oposición de plazas del Subgrupo C1 y C2 y del Grupo E del Ayuntamiento de San Sebastián.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 23 de febrero de 2023.—La directora de Gestión de Personas, Maribel Iñiguez Azurmendi. (1346)

EK\CV GAO-I-2023-01346